

OSABIDE

Egon-eziñean geienok gagoz: ibilli bearra doguneg BIDEAK ikusterakoan poztu egin izan oi gara naiz eta bideari ekite-rakoan buruari atz egin bear nundik joan gindezkean ez dakigu-nean naiz eta nora eldu gara dogun jakin.

Aldiotan bide zar edo barrietan zear bein baño geiagotan egin izan oindogu zalapartadan eta itsumuska: zalapartadaka eta itsu-muska gabe zentzundun eta gizakiro ekin bearrekoak dira biderik geienak, nora eldu gara gengiken eta nola ondo kontuan arturik.

Gure OSABIDEAK izan daben lenengo ostopoa aucxx izan da, bai osagille eta laguntzaleentzat eta baita OSABIDE orreri lagun egin bear zioten guztientzat be. Nola eta zertarako izan bear leuken bear baizen sakon astertzeke ekitea. Batzuentzako badirudi zama aundiagie dala eta beste batzuentzako be ikusá al izan dogu OSABIDEA jasotzea eta ornitzea baño egitekorik egitekoagoa izan dala bakoitzak bere aurrerapideari erabotzea eta baita bakoitzak bere etorkizunari men egin bearra be.

Alaz eta guzti be ezin uka dagikeguna da gure OSABIDE onetan geianok edo ARRASATE, LENIZ eta ALOÑA aldeetakook erosatasunik asko izan dogula, eta, ditugula. OSABIDE au aintzakotzat artu eta danon artean eta danontzako geure bak oitzaren etxetik urbil izan al dagikegun TXOKO gozoa izan bear dau bakoitzak bere txo-kotzoan izan al ez legikezan erosotasunak eta laguntza izan dagia-zan osasuna jagoteko edo indarbarritzeko.

Onetariko